

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Artearen Historia

USE 2022

www.ehu.eus



Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea.

Proposatutako sei ariketatako HIRU egin behar dituzu.

- Ariketak bi multzotan banatuta daude:
- **A multzoa:** 4 gai ditu eta **BAT** garatu behar duzu (5 puntu balio du).
- **B multzoa:** 4 irudi ditu eta **Bi**ren iruzkina egin behar duzu (bakoitzak 2,5 puntu balio du).

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

Debes hacer TRES de los seis ejercicios propuestos.

- Los ejercicios están distribuidos en dos bloques:

Bloque A: consta de 4 temas y **debes desarrollar UNO** de ellos (vale 5 puntos).

Bloque B: consta de 4 imágenes y **debes analizar DOS** de ellas (cada una vale 2,5 puntos).

En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.



A MULTZOA

Garatu gai hauetako **BAT** (5 puntu):

1. Erromatar arkitektura eta haren ekarpen nagusiak. Erromatar hirien urbanismoa eta arkitektura zibila atal nagusizat.
2. Errenazimentuaren sortzea Italian. Tradizio klasikoaren eta lengoia formal berriaren susperraldia. Quattrocentoko arkitekturaren eta eskulturaren ezaugarri nagusiak. Artistak eta mezenasak.
3. Eskultura barrokoa. Ezaugarri orokorrak eta ikuskera desberdinak. Italiako eskulturaren eta Espainiako imajinagintzaren arteko aldeak.
4. Pintura inpresionista: Ezaugarri orokorrak eta funtsezko ekarpenak. Edouard Manet eta Barbizongo Eskola erreferentzia gisa. Argazkigintzaren zabalkundearekin elkarbizitzan.

BLOQUE A

Desarrolla **UNO** de estos temas (5 puntos):

1. La arquitectura romana y sus aportaciones fundamentales. El urbanismo de las ciudades romanas y la arquitectura civil como capítulo destacado.
2. La gestación del Renacimiento en Italia. La recuperación de la tradición clásica y el nuevo lenguaje formal. Características fundamentales de la arquitectura y la escultura del Quattrocento. Artistas y mecenas.
3. La escultura barroca. Características generales y diversas concepciones. Diferencias entre la escultura italiana y la imaginería española.
4. La pintura impresionista: características principales y aportaciones fundamentales. Edouard Manet y la Escuela de Barbizón como referencia. Su convivencia con la difusión de la fotografía.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBAK

2022ko OHIKOA

ARTEAREN HISTORIA 2022

PRUEBAS DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

HISTORIA DEL ARTE 2022


B MULTZOA / BLOQUE B

Egin irudi hauetako **Bi**ren iruzkina (2,5 puntu bakoitzak):

Analiza **DOS** de estas imágenes (2,5 puntos cada una):



Lisipo
Apoxiomeno



Sainte-Chapelle



Francisco de Goya
*Los fusilamientos del 3 de Mayo/
Maiatzaren hiruko fusilamenduak*



Pablo Picasso
Gernika



ARTEAREN HISTORIA 2022 / HISTORIA DEL ARTE 2022

GAIAK ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

1. Garai edo artista bakoitzaren arte-adierazpenak eta haien estiloa bereizten ditu, eta haien kronologia eta bilakaera ezartzen ditu. **(1,50 puntu bat gai bakoitzeko)**
2. Gaiari heltzean dagokion garaia hartzen du kontuan, eta horren arabera garatzen du. Adierazpen argiak egiten ditu, errakuntzarik gabe, eta terminologia artistiko modu egokian erabiltzen du. **(1,50 puntu gai bakoitzeko)**
3. Galderak dituen alde guztiei erantzuten die: forma- eta estilo-ezaugarriak, aurrekariak eta geroko eraginak. Eta balioesten ditu beren lanetan planteamendu berriak garatu dituzten artisten edo bide artistiko berriak ireki dituzten artisten protagonismoa. **(1,50 puntu gai bakoitzeko)**
4. Estilo eta mugimendu artistikoak edo artista jakin baten adierazpen artistikoak haien testuinguruan dauden faktore ideologiko, ekonomiko, politiko kultural eta sozialekin lotzen ditu. **(0,50 puntu gai bakoitzeko)**

IRUDIEN IRUZKINAK ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

1. Badaki zer arte-estilo edo arte-mugimendu dagokion artelanari edo artistari, eta haren estiloaren ezaugarri propioak bereizten ditu **(0,75 puntu irudi bakoitzeko)**
2. Proposatutako obraren edo artisten alderdi formal, esangurazko edo tekniko nabarmenenak aztertzen ditu. **(0,75 puntu irudi bakoitzeko)**
3. Adierazpen argiak egiten ditu, errakuntzarik gabe, eta terminologia artistiko modu egokian erabiltzen du. **(0,50 puntu irudi bakoitzeko)**
4. Garai bateko lan eta artista garrantzitsuak aurreko edo ondorengo aldikoekin lotzen ditu **(0,25 puntu irudi bakoitzeko)**
5. Artelanak eta artistak dagozkien faktore ideologiko, kultural, erlijioso, politiko-sozial eta ekonomikoekin lotzen ditu **(0,25 puntu irudi bakoitzeko)**